ABANTO ZIERBENA

All Iron

UZTAILA-2022-JULIO
UDAL ALDIZKARIA - REVISTA MUNICIPAL
8. ZENBAKIA

GOZATU UDAZ !!!
¡¡ DISFRUTA EL VERANO !!

UDALEKUAK – COLONIAS – UDAL IGERILEKUAK – PISCINAS MUNICIPALES – HAURRENTZAKO JOLASAK – FIESTA DE LA ESPUMA – JUEGOS INFANTILES

IRAILAK 09-10-11 SEPTIEMBRE

BURDIN JAIA

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

UDAL BERREGITURATZEA
REESTRUCTURACIÓN MUNICIPAL

Jon Cuesta Escamilla zinegotziak joan den maiatzean jakinarazi zuen udal-ordezkaritzako karguei uko egiten ziela.

Jon Cuestak esperientzia luzea du zinegotzi gisa, eta maiatzaren 26ko osoko bilkuran bere aurreko lanbide-jarduera berreskuratzeko nahia adierazi zuen, bere ardurapeko udal-proiektu gehienak aurreratuta edo amaituta baitaude.

Abanto Zierbenako Udalak zeregin publikoetan bere arduraldia eskertu nahi dio eta lanbide-etapa berrian, eta, batez ere, eremu pertsonalean hoberena opa nahi dio.

Eskerrik asko, Jon.

El concejal Jon Cuesta Escamilla comunicó el pasado mes de mayo su renuncia a los cargos de representación municipal.

Jon Cuesta, con una dilatada experiencia como concejal, alegó en el pleno del día 26 de mayo su deseo de retomar su actividad profesional anterior una vez que la mayor parte de los proyectos municipales comprometidos están avanzados o finalizados.

Desde el Ayuntamiento de Abanto Zierbena queremos agradecer su dedicación a las labores públicas y le deseamos lo mejor en su nueva etapa profesional y sobre todo en el ámbito personal.

Eskerrik asko Jon.

2022ko ekainaren 16ko Udalaren osoko bilkuran **Alazne Zenekorta Larrieta** izendatu zuten Udalbatzako kide Jon Cuestaren ordez.

Alazne Zenekorta Gallartakoa da, baina gaur egun Sanfuentesen bizi da. Meatzaritzaren Museoan gida lanetan dihardu, eta bere elkartearekin, bai eta beste batzuekin (hala nola Beti Abanto Saharakin Elkartea) ere lankidetzan aritzen da.

Bere ardurapean hartuko ditu Berdintasun, Gizarte Ekintza, Osasun, Turismo eta Merkataritza arloak.

Ongi etorri, Alazne.

En el Pleno Municipal del día 16 de junio de 2022 dio entrada a la corporación municipal a **Alazne Zenekorta Larrieta** en sustitución de Jon Cuesta.

Alazne Zenekorta, natural de Gallarta y actualmente viviendo en Sanfuentes, trabaja como guía en el Museo de la Minería y colabora con su asociación así como con otras como Beti Abanto Saharakin Elkartea.

Se responsabilizará de las Áreas de Igualdad, Acción Social, Sanidad, Comercio y Turismo.

Ongi etorri, Alazne.

Bestalde, **Iratxe Etxeandia Perezek** bere gain hartu ditu **lehenengo alkateordearen eta Auzo, Obra, Zerbitzu eta Hirigintza nahiz Udaltzaingo eta Zerbitzu Orokorretako zinegotzi delegatuaren karguak.**

Por su parte, **Iratxe Etxeandia Perez** ha asumido **los cargos de Primera Teniente de Alcalde y Concejala Delegada de las Áreas de Barrios, Obras, Servicios y Urbanismo, así como Policía Local y Servicios Generales.**

OBREN PLANA 2022REN JARRAIPENA
SEGUIMIENTO DEL PLAN DE OBRAS 2022

SANFUENTESKO IRISGARRITASUNA
ACCESIBILIDAD EN SANFUENTES

Inauguradas las rampas que conectan la zona del frontón, el barrio de Santa Bárbara y el Hogar de Mayores. **Una inversión de 180.000 € y un compromiso recogido en los Presupuestos Participativos.**

HOBEKUNTZAK GALLARTAKO HILERRIAN
MEJORAS EN EL CEMENTERIO DE GALLARTA

Hobekuntzak pasabideetan, ur-bilketan eta LED argiteria berria.

170.000 euroko inbertsioarekin, udazkenean amaitzea espero dugu.

MORTUERO - LA TRINIDAD URBANIZAZIO-OBREN AZKEN FASEA
FASE FINAL DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN - MORTUERO - LA TRINIDAD

Udatik bueltan, ziurrenik, bide honen urbanizazio-obra amaituta izango dugu, eta ingurune bikain horretan oinezkoak, txirrindulariak eta ibilgailuak batera ibiliko dira.

Ibilgailuentzako pasabidea gaitu dugu dagoeneko, beharrezko neurriak hartuta.

A la vuelta de verano, previsiblemente, tendremos finalizada la obra de urbanización de este vial, que permitirá convivir a peatones, ciclistas y vehículos en un entorno maravilloso.
Hemos podido habilitar ya el paso a vehículos, **con la debida precaución.**

ALDAGELA BERRIAK TXIKITO PILOTALEKUAN
NUEVOS VESTUARIOS EN FRONTÓN TXIKITO

Gallartako Txikito Pilotalekua Berritzeko Planean **aldagelak oso-osorik berritzeko lanetan murgilduta gaude**, eremu eta altzari berriak eskuratzeko eta irisgarriak izateko. **159.000 euroko inbertsioa egin da.**

UDALEKUAK
COLONIAS DE VERANO

Udalekuen magia aurten berriz itzuli da indar handiz Abanto Zierbenara. Indar horrek Udala zerbitzua zabaltzera bultzatu du inor plazarik gabe ez gelditzeko.

Jarduerak Udalaren % 60-70eko dirulaguntza jaso du.

Lehenengo astean txikienak (3-5 urte) izan ziren, eta 73 neska-mutilek eman zuten izena. Asko gozatu zuten. Aldizkari hau ixtean ertainekin eta Gazteguneko jarduerekin gabiltza. **Guztira, 457 plaza.**

Argazkietan ikusten duzuen bezala, bikain pasatzen ari dira. Eskerrik asko zuen konfiantzagatik!!

La magia de las colonias de verano ha vuelto este año con mucha fuerza a Abanto Zierbena. Tanta que el ayuntamiento ha tenido que ampliar el servicio para conseguir que nadie se quedara sin plaza.

Una actividad que cuenta con una subvención municipal entre el 60-70%

La primera semana se celebraron los de los más txikis (3-5 años) , con 73 niñas/os apuntados. Disfrutaron muchísimo. Al cierre de esta revista estamos con los medianos y las actividades del Gaztegune. **En total 457 plazas.**

Como veis en las fotos están pasándoselo genial. Eskerrik asko por vuestra confianza!!

BIZI UDA – UZTAILEKO BIGARREN HAMABOSTALDIA
VIVE EL VERANO - SEGUNDA QUINCENA DE JULIO

La segunda quincena de julio podremos disfrutar de numerosas actividades **(Fiesta de la Espuma, Simuladores, talleres, etc.) en 3 circuitos por Las Carreras , Gallarta y Sanfuentes**. Ondo pasa!!

GOZATU UDAKO BONUAZ IRAILAREN 15ERA ARTE
DISFRUTA DEL BONO VERANO HASTA EL 15 DE SEPT.

Gogorarazten dizuegu zuen esku daukazuela udal-igerilekuetako **UDAKO BONUA.**

42,70 euroren truke igerilekuetara, TxipliTxapla parkera eta lorategiko 2.000 metrotara sar zaitezke udaz gozatzeko eta freskatzeko.

Gainera, ikastaroetan beherapenak eta lehentasuna izango dituzu. Anima zaitez, irailaren 15era arte erabil dezakezu.

EUSKADI LAGUNKOIA - 10 URTE
EUSKADI LAGUNKOIA - 10 AÑOS

Joan den ekainaren 29an, Donostiako Tabakalerako egoitzan Euskadi Lagunkoia ekimenaren X. urteurrena ospatu zen. Ekimen horrek zahartze aktiboa eta udalerria hobetzeko adinekoen partaidetza sustatzen ditu. Abanto Zierbenan **Abanto Zierbena Atseginez** izenez ezagutzen dugu.

Udala oso harro dago ekimen horri batzearekin, eta, gainera, **gure udalerria hobetzearen alde batera lan egiteko lantalde aktiboa eta trebatua izatearekin. Eskerrik asko**

El pasado 29 de junio se celebró en la sede de Tabakalera en Donostia el X. Aniversario de la iniciativa Euskadi Lagunkoia. Una iniciativa que impulsa el envejecimiento activo y la participación de las personas mayores en la mejora de los municipios. En Abanto Zierbena la conocemos como **Abanto Zierbena Atseginez.**

Como ayuntamiento estamos muy orgullosas/os de habernos sumado a la iniciativa y además de **contar con un grupo de trabajo activo y preparado que trabaja continuamente por mejorar nuestro municipio. Eskerrik asko**

LAS CARRERASKO JAIAK
FIESTAS DE LAS CARRERAS

GALLARTAKO JAIAK
FIESTAS DE GALLARTA

SANFUENTESKO JAIAK
FIESTAS DE SANFUENTES

GAUTXORI - DOAKO AUTOBUS-ZERBITZUA
GAUTXORI - SERVICIO DE BUS GRATUITO

Ekimena Udalak bultzatu du jaietan gauez joan-etorriak doako autobusez egiteko, eta oso arrakastatsua izan da.
Las Carrerasko jaietan bakarrik egunero 12 bidaia egin zituen joateko eta beste 12 etortzeko, eta batez beste bidaia bakoitzean 50 pertsona joan ziren.

Helburua da etxera buelta seguruagoak eta lagunduak egitea, ibilgailu pribatuetan ibilbideak eta haien arriskuak deuseztatzeaz gain.

La iniciativa impulsada por el ayuntamiento de cara a realizar los traslados en fiestas en autobús gratuito por las noches ha resultado un éxito.
Sólo en las fiestas de Las Carreras el autobús **24 trayectos de ida y vuelta con una media de 50 personas en cada viaje.** En fiestas de **Gallarta fueron 28 trayectos, y en las de Sanfuentes otros 24 trayectos**.

Queremos agradecer a la población el uso responsable de este transporte. **Su primer objetivo es hacer una vuelta más segura y acompañada a casa, así como eliminar riesgos y trayectos en vehículos privados de las carreteras.**

ENPLEGUA SUSTATZEN
IMPULSANDO EL EMPLEO

ABANTO ZIERBENA
UDALA
AYUNTAMIENTO

Ohikoa denez, Abanto Zierbenako Udalak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskutik, etengabe ekintzak egiten ditu udalerrian enplegagarritasuna hobetzeko.

2022rako enplegu-programek hurrengo hilabeteetan 46 langabetu kontratatzea aurrez ikusten dute.

Como viene siendo habitual, el Ayuntamiento de Abanto Zierbena, de la mano del Servicio Vasco de Empleo, Lanbide, realizamos acciones continuadas para mejorar la empleabilidad en nuestro municipio.

Los programas de empleo para este 2022 **contemplan la contratación de 46 personas desempleadas** en los próximos meses:

- **Acciones Locales de empleo:** 17 nuevos contratos.
- **Para colectivos vulnerables:** 22 contratos.
- **En el Plan de empleo Joven:** 7 contratos.

La inversión total en estos Planes de Empleo asciende a 885.000€ de los cuales el Ayuntamiento aporta 90.000€.

La tipología de empleos es muy variada y **puedes solicitar información en la Agencia Local de Empleo cuando lo desees.** Ejemplos:

- Brigadas de multi-asistencia
- Agentes cívicos
- Agentes ambientales
- Informática/o
- Técnica/o de igualdad, etc.

ENPRESEN SORRERA ETA KONTRATAZIOA SUSTATUZ
INCENTIVANDO LA CREACIÓN DE EMPRESAS Y LA CONTRATACIÓN

Ayudas a la Creación de Empresas - Abanto Ekintzaileak.

16.000 euroko funtsak ditu, eta **ekintzaile bakoitzeko laguntza 1.000 eurokoa da** 2022 ekitaldian Abanto Zierbenan enpresa abian jar dezan gastuak ordaintzeko.

Laguntza honi esker, **batez beste urteko 16 enpresa jartzen dira abian.**

Ayudas a la contratación de personas desempleadas en Abanto Zierbena.

Ayudas para empresas radicadas en Abanto Zierbena. Buscamos **facilitar el acceso al mercado laboral en empresas del municipio.** Especialmente colaboramos con personas que realizan el itinerario completo de formación y búsqueda de empleo en los programas que organizamos.

Se subvencionan los contratos indefinidos con importe de 8.000€ e incluso más si son colectivos desfavorecidos. El presupuesto global es de 55.000€